



Kultura
2023UDIN0004

ELGOIBARKO UDALA eta (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAREN ARTEKO

HITZARMENA

MUSIKA ETA DANTZA HEZKUNTZA SUSTATZEKO EKINTZAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Elgoibarren, bi mila eta hogeita hiruko apirilaren 18an
BILDURIK

Alde batetik, **ANE BEITIA ARRIOLA** andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmendua dagoena.

Eta bestetik, **ANDONI URBIETA SANZ**, 15.391.512-G NAN zenbakiduna, adinez nagusia, (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAren izenean eta horren ordezkari gisa.

Bi alderdiek, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALTZEN DUTE:

- I -

2005eko urtarrilaren 31n eratu zela EMUDAFE, Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntza, G 20868634 zenbakidun IFKarekin eta Aita Agirre Plaza 4 kokapenarekin.

- II.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariaren 2005eko otsailaren 25eko ebazpen bitartez, EMUDAFE Federazioaren konstituzioa erregistratuta geratzen da Elkarteen Erregistroaren 2. atalean, FD/G/00132/2005 zenbakiarekin, otsailaren 12ko Elkarteen 3/88 legearen arabera.



Kultura
2023UDIN0004

- III -

EMUDAFE Federazioa musika eta dantzarekin zuzenean lotutako herriko elkarte hauez osatzen da:

Elgoibarko INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA, RPG 1551 Erregistro zenbakiarekin.

Elgoibarko, OLASO ELGOIBARKO DULTZAINEROEN ELKARTEA, AS/G/11076/2004 Erregistro zenbakiarekin.

ELGOIBARKO UDALAREN TXISTULARI TALDEA, AS/G/1168/2004 Erregistro zenbakiarekin.

ELGOIBARKO UDALAREN MUSIKA TALDEA, AS/G/02442/1991 Erregistro zenbakiarekin.

Elgoibarko HARITZ DANTZA TALDEA, AS/G/07700/1998 Erregistro zenbakiarekin.

ELGOIBARKO PARROKIAKO ABESBATZA, G-20208922 identifikazio fiskal kodearekin.

-IV -

Federazioaren Estatututan jartzen duenez, federazioa desegingo balitz eta ondasun sozialen bat geratuko balitz, ondasun hori Elgoibarko udalarentzat izango litzateke.

ELGOIBARKO UDALAK, udalerrian musika eta dantza hezkuntza arloa areagotu nahirik, musika eta dantza bultzatuko duten ekintzak antolatzeke laguntza eman nahi duela.

Hortaz, (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK Elgoibarko udalerrian musika eta dantza bultzatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera:



Kultura
2023UDIN0004

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK, 2023 ekitaldian, kultura arloan burutuko duen jarduera bideratzeko UDALAK emango dituen dirulaguntzak arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, dirulaguntza emango dio ELGOIBARKO UDALAK (aurremerantzean, UDALA) (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZARI ondoren zehaztuko den jarduera bideratu ahal izateko. (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK, berriz, hitz ematen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera burutuko duela.

Hirugarrena: Hona hemen UDALAK diruz lagunduko duen ekintza edo jarduera:

- ❖ Herrian burutzen diren musika eta dantza saio edo ekintzak bultzatzea.
- ❖ Musika eta Euskal Dantza sustatzea, taldeak mantenduz, bereziki Inazio Bereziartua Musika Eskola.
- ❖ Musika eta dantza tradizionala oro har sustatzea eta promozionatzea eta, bereziki, Elgoibarko musika autoktonoa eta, batez ere, Inazio Bereziartua Musika Eskolaren mantentzea bermatzea.
- ❖ Musika eta dantza zaletasuna sustatzeko eta garatzeko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea.
- ❖ Sortu ahal diren baloreak landu eta horiek moralki eta materialki babestea, beti ere unearen arabera ahalmenen arabera.
- ❖ Aipatutako helburu orokorraren baitan intereseko langintza egiten duten edo egingo duten musika eta dantza taldeak eta abesbatzak sortzea edo, egongo balira, horiei laguntzea.
- ❖ Federazioak dituen helburuak lortzeko onuragarriak izango diren kontzertuak, hitzaldiak, argitalpenak eta bestelakoak antolatzea.

Laugarrena.- Dirulaguntza hauek UDALAK 2023 urterako indarrean duen aurrekontuko I 0205.481.334.00.15 2023 (183) zenbakidun partidaren kontura emango dira.

Bosgarrena: UDALAK, 2023. urtean, 188.150,44 € euroko dirulaguntza emango dio (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZARI, Elgoibarko udalerrian kultura arloko jarduera burutzeko.

Seigarrena: UDALAK hilero ordainduko dio dirulaguntza (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZARI, Udaleko kontu-hartzaileak dagokion txostena egin ondoren:

- Hilero 15.679,22 euro izango da.

- Hori dela-eta, Elgoibarko Udalaren eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundeek dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 36.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiten den diru aurrerapena 30.000 eurotik gorakoa denez, ELKARTEAK 13.170,53 euroko bermea jarri beharko du, aurreratutako zenbatekoaren %7aren parekoa. Horretarako, indarrean dagoen legedian araututako gordailuak, abalak, kauzio-aseguruak, berme pertsonal eta solidarioak nahiz bermeen eskubide errealak aurkeztu ahal izango ditu ELKARTEAK.

(EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu Kultura Sailean, 2024ko urtarilaren 12a baino lehen. Egun hori larunbata edo jai eguna bada, zuriaketa aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko oroitidazkia, eta generoari buruzko txosten laburtua sartu beharko dira. Horretarako, datuak sexuka bereizita azaldu beharko dira, eta berdintasuna sustatzeko, eta neska-mutilen parte-hartzearen parekotasuna ziurtatzeko, abian jarritako ekintzen berri emango da.
- Diru-sarreraren eta gastuen behin betiko zerrenda, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldearen arrazoiak.
- Emandako dirulaguntza egiaztatuko duten fakturak. Alde horretatik, onartezinak izango dira lege ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (liburuxka, kartel, idatzi, argazki...). Dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko da Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduerak hori, eta horretarako, Udalaren armarria txertatu beharko da. Udalak emakida jakinarazi ondoren sortzen diren jardueretan eta materialetan bete beharko da baldintza hori.
- Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen artetik seigarrenak dioenari jarraiki, zigor edota debekuren baten pean ez dagoela egiaztatzeko.
- Zinpeko aitorpena. Bertan adierazi egin beharko dira beste erakunde edo organismo batzuei eskatutako dirulaguntzak edo dagoeneko emandako gainerako dirulaguntzak.

Elgoibarko Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egingo ditu "MUSIKA ETA DANTZA HEZKUNTZA SUSTATZEKO EKINTZAK" egitasmoa burutzen duen EMUDAFE Elgoibarko Musika eta Dantza Federazioarentzat.



Kultura
2023UDIN0004

Horregatik, elkarreragingariak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazio emandakoak. Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Elgoibarko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu hitzarmen honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- GIZARTE SEGURANTZAK: Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ALDUNDIAK: Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ELGOIBARKO UDALAK: Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Zazpigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Zortzigarrena: (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- ❖ Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- ❖ (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- ❖ Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribaturen baten dirulaguntzak jaso badira, (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK horren berri eman beharko dio Udalari.
- ❖ Antolatzen diren jardura guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasunezko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.
- ❖ Ezingo dira onuradun izan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukeren printzipioen aurkako onarpen edo sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jardura duten erakundeak.
- ❖ Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agiriaren edukietan.
- ❖ Dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia kontuan izatea, hau da, neska-mutilen egoera ezberdinak, baldintzak, nahiak eta beharrak kontuan

hartzeari, berdintasunerako ekintza eta helburu zehatzak txertatuz.

- ❖ Sexu-bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duten egitasmo, proiektu edo jarduerarik ez antolatzea.
- ❖ Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren II. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen artetik seigarrenak dioenari jarraiki, zigor edota debekuren baten pean ez dagoela egiaztatzeko.
- ❖ Euskararen erabilera bermatu eta sustatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak bideratuko ditu. Salbuespen gisa, Indarkeriaren prebentzioaren kasuan, ekintzak erdaraz izan daitezke, betiere, eskolarekin horrela adosten badira.
- ❖ Udalak edo kontrolerako eskumena duen beste erakunderen batek hala behar eta eskatuko balu, eskatzen zaion informazioa eskura ematea.
- ❖ Urtero egiaztatzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- ❖ Kontabilitate-liburuak, diligentzia-erregistroak eta bestelako dokumentuak izatea aplikatzekoa den legeriak zehazten duen bezala.
- ❖ Jasotako dirua zertarako erabili den egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztapen eta kontrol jardueretan erabili ahal izan daitezen.

Bederatzigarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da.

Horretaz gain, (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZARI dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskaeraren datuetan gezurak sartzea.
 - Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzea.
 - Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
 - Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea.
 - Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
 - Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea.
 - Indarrean dagoen lege araudi guztia ez betetzea, batez ere Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 legea, lege hori dela bitarte debeku baita, besteak beste, pertsonen sexuaren arabera bazterkeria klase guztia, zuzeneko nahiz zeharkakoa.
 -
-
- Jasotako dirua zertan erabili den egiaztatzeko beharrezkoak direnean, egiaztatzen eta fidantza kontrola egiteko eskatzen den dokumentazioa ez ematea aitzakiaren bat bilatuz



Kultura
2023UDIN0004

edo ezezkoa emanez; eta zeregin horretarako beharrezkoak diren kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazioari dagozkien betebeharrak ez betetzea.

Hamargarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamaikagarrena: Hitzarmenaren jarraipenerako Batzorde Mistoa osatzen da EMUDAFE Federazioaren Zuzendaritza Batzordearekin eta Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batekin, presidentea Elgoibarko udaleko Alkatea izanik.

Batzorde hori urtean behin bilduko da gutxienez, EMUDAFEK garatutako programaren berri emateko eta hitzarmenean zehazten diren helburuak betetzen ari direla kontrolatzeko.

Era berean, hitzarmen honetan zehazten diren aldeetako edozeinek hala eskatuko balu, Batzordea bildu egin beharko litzateke.

Hamabigarrena: Elgoibarko Udaleko Kultura sailak izango du hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Kultura sailak, besteak beste, honako hauek izango ditu kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- ❖ Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- ❖ Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- ❖ Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko ordainagiriak benetakoak direla egiaztatzea.

Hamahirugarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Hitzarmen honetan berriaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan, baita Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea ere.

Hamalagarrena: (EMUDAFE) ELGOIBARKO MUSIKA ETA DANTZA FEDERAKUNTZAK,



Kultura

2023UDIN0004

hitzarmen honen bidez zehazten diren dirulaguntzen onuradun den aldetik, UDALAK eskaintzen dion babesaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintzen kasuan.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, goiburuan jasotako toki-egunetan:

Ane Beitia Arriola
Elgoibarko Udaleko alkate

Andoni Urbietta Sanz
Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntza

Sinatzailea/k	Hemitartasun Batzordeburua BLANCA LARRAÑAGA IRIONDO IMANOL GARAIZABAL AGUIRREGOMEZCORTA IMANOL GARAIZABAL AGUIRREGOMEZCORTA		
Kodea	HI23/0033	Udala	Elgoibar
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/100/AAAASBXJP.48UY		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakur ezazu.			